



BARREN
TOKIKOM

Beitiatarrak, zuretik ezpala

Ane eta Lucio Beitia




Iker Amutxastegi Fernandez

2017ko martxoaren 13an hil zen, 41 urte zituela

Zu izan zara gure saltsa eta perejila; ez zaitugu ahazten.

Lekuederreko lagunak



Iker Amutxastegi Fernandez

2017ko martxoaren 13an hil zen, 41 urte zituela.

*Elkarren ondoan pasatutako uneak
ez ditugu inoiz ahaztuko.*

Zoragarria izan da zurekin konpartitzea.


2005eko zure lagun taldea.

Iker Amutxastegi Fernandez

2017ko martxoaren 13an hil zen, 41 urte zituela.

***Gu sortu ginen enbor beretik
sortuko dira besteak.
Ez zaitugu ahaztuko.***

Rodisako lankideak





ENEKO ITURBE



“Ez al duzu uste gazte asko ia mozorrotuta joaten direla ezkontzetara?”

Kaixo, Ana. Zer, Elgoibartik ere sumatuko da jada epeltasunik, ezta? Hori esaten dit amak egunero behintzat, eguzkia berotzen hasi dela dagoeneko! Urteko momentu ederra izaten da hau denontzat, bai horixe! Poztasun handia ematen du zerura begiratu eta eguzki biribila ikusteak. Badiara, gainera, udaberri garaiarekin batera datozen ezkontzak. Eguraldi ona izango ote horren arrazoi?

Ziur nago hilabete gutxiren buruan ezkontzen diren hainbat lagun eta ezagun dauzkagula denok, eta egun handia izaten dela esaten duten arren, egia da, burukomin galantak ere sortzen dituela ezkontza batek!

Horregatik, gaur, ezkontzetan gizonezkoek eramaten dituzten jantzetan zentratuko naiz, askotan alde batera uzten dugun generoa baita modan. Izan ere, argi dago emakumezkoen modari buruz askoz ere gehiago hitz egiten dugula. Ideia ona iruditzen?

Egia da gizonezkoak ezkontza garaietan lasaiago ibiltzen direla, hauen look-a oso estandarra izaten baita. Baina aizu, uste dut ez liratekeela hain eroso eta lasai egon beharko; izan ere,

horrelako egun baterako arropa aukeratzekoan, patxada eta axolagabekeria, batzuetan, ez dira lagun izaten: ez al duzu uste gazte asko ia mozorrotuta joaten direla ezkontzetara? Azken boladan, Elgoibar zein Mendaroko plazetan horrelako asko ikusten dugulakoan nago ni...

Badauzkat nik hori saihesteko hainbat ideia, Ana! Bilatu ditzagun freskoak diren elementu eta koloreak, irudi edo itxura “deportiboa” duten zapata batzuk, praka pitilloak dituen jantzi bat, edo, zergatik ez, bi piezako look batekin ere ausartu gintezke, adibidez, cardigan bat erabiliz. Zer deritzozu proposamen hauei? Aurrerago aipatutako plazen irudia bestelakoa litzateke, ezta?

Hala eta guztiz ere, betiko look tradizionalari ere ongi deritzot, ez pentsa! Baina interesgarria iruditzen zait elementu txikiekin zein korbarekin, alkandorekin, zapatekin edo horien koloreekin ere jolastea.

Beno, Ana, nik eman dut nire iritzia, eta orain, zure txanda da! Bat egingo ote dugu?



ANA ALBERDI



“Lehen ezkontzetako ilusioa dela iruditzen zait; traje, gorbata edo pajarita jantzeko ‘ilusioa’”

Kaixo, Eneko! Bai, arrazoi osoa duzu, badirudi eguraldi onak bihotzak ere alaitu alaitzen dituela, eta izan daiteke horren ondorio izatea udaberriko ezkontzen boom-a. Grazia egin dit Mendaro eta Elgoibarko plazen inguruan egindako komentarioak, baina bat nator zurekin, batzuetan burua ere joaten zaigu lookak aukeratzeko orduan, baita gizonezkoei ere.

Nik irailean izan nuen ezkontza, eta harritu ninduen gonbidatu guztiak itxura antzerakoarekin ikusteak, oso klasiko, alegia. Aizu, gazteak baldin bagara, zergatik ez dugu, bada, betiko trajea baztertuko? Look sport-ago baten aldeko apustua egingo? Batzuetan, lehen ezkontzetako emozioa

dela iruditzen zait; traje, gorbata edo pajarita jantzeko “ilusio” hori edo.

Gaur, gure irakurleei look proposamen bat egingo diet, zuk azaldutako look sport horren ildotik jarraiki. Zehatza izango naiz. Lagun, zergatik ez ditugu alde batera utziko betiko traje beltz edo urdin ilun klasikoak eta look *millennialagoak* sortuko? Esaterako: txinatar formako galtza beige-ak, alkandora urdin argia, jaka urdin iluna eta zapata marroixka batzuk?

Ziur nago ezkontzako apurtzaile estilosoena izateko aukera izango duela horrelako look-a aukeratzeko duen hurrengo gizonezkoak. Egin orain zuen hautua.



ARANTZA ETXEBERRIA

Irakaslea

Pederastak etxean

gertatu direla eta denboran errepikatu izan direla. Bortizkeria hori salatzea, aitortzea, benetan zaila egin zaiela, urteak igaro behar izan direla horretarako; aita, osaba, koinatu, lehengusu, anaia, edo bizilaguna izan daitekeelako askotan; eta noski, haur edo gaztetxo batek, zer pentsatuko du ba maite duen horrek eragin dion minaz. Ba bera, biktima dela erruduna, berak egindako zerbaitek eraman duela erasotzailea egindakoak egitera.

“Txanogorritxori ez zaio bizitza erraza suertatzen otsoa teiltupe berean bizi denean”

Esan nahiko nuke baita ere, erasoaren muga, ez dela pertsona guztiengan bera;

batek eraso bezala bizi duena, beste batek ez duela horrela bizi. Eta zaila dela oro har ekinga bat gehiegikeria den edo ez den zehaztea. Baina nik nahi ez dudan zerbaitek egin, esan, erakutsi... arazten badidate, hori nire ustez, eraso da, berdin zait zer gertatu den, are gehiago bata haurra eta bestea heldua bada. Benetan kentzen diona sexua aurkitzeko inozentzia da, berak aukeratzen duenarekin jolasean, eta horrek ondorio mingarriak ekartzen dizkio biktimari bizitzan zehar.

Eta nola babestu, nola indartu gure haur eta gazteak horrelako mamu baten aurrean?

Ba bere nahiak zeintzuk diren argitzen lagunduz, zerbaitek nahi ez badu, eskubidea duela ezetz esateko, gertuko laguntza inkondizionala bilatzen trebatuz, baina batez ere ez dut horrelakorik nahi esatera ohituz, baita musurik eman nahi ez duenean ere...

Txanogorritxori ez zaio bizitza erraza suertatzen otsoa teiltupe berean bizi denean.

Azken asteetan izan da gizartearen nolabaiteko burrunba elizaren morroi jator batek eragin dituen sexu erasoak direla eta. Aspalditik genekien zelibatua onarturikoek zenbat min eragin duten beraien inguruan hezi eta hazi diren haurrengan: eraso, sineskeri eta bekatuaren bitartez.

Nik, ordea, ez dut egur gehiago bota nahi su hortara.

Urrats bat gehiago emate aldera, esan nahiko nuke, nire lagun emakumeek aitortu didatenez, beraien jasan dituzten sexu erasoak familia giroan



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuittzak ataletan adierazitako enantzikizunak. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegui, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Geru Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



EUSKARA

elgoibar

ELGOIBARKO UDALA

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Antonio Salazar Lopez

2017ko martxoaren 14an hil zen, 98 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Iker Amutxastegi Fernandez

2017ko martxoaren 13an hil zen, 41 urte zituela.

Zure oroimenak indartzen gaitu.

Markelen futboleko lagunak



Iker Amutxastegi Fernandez

2017ko martxoaren 13an hil zen, 41 urte zituela.

Betirako izango zaitugu gogoan.

Markel, Eritz eta Maiarren ikastolako lagunak partez



Iker Amutxastegi Fernandez

2017ko martxoaren 13an hil zen, 41 urte zituela.

***Denborak samina arintzen omen du,
baina zure oroitzapen
goxoa ezerk ez du lausotuko.***



Iker Amutxastegi Elgoibarko bizilaguna hil zen istripuz astelehenean Azkaraten



Arg.: Maxixatzen

Istripu larria gertatu zen astelehen arratsaldean Azkarate gainean. Trailer batek artaziarena egin zuen eta lau auto jo zituen. Istripuaren ondorioz, hiru lagun hil egin ziren eta beste bost zauritu. Hildakoetako bat Iker Amutxastegi Elgoibarko bizilaguna izan zen. Peugeot 307 autoan zihoan. 41 urte zituen, eta jaiotzez eibartarra zen. Txirrindularitza munduan oso ezaguna zen, eta aurten Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari elkarteko zuzendaritzan zegoen. Otsailera arte Rodisako langilea izan zen eta orain Bernardo Ecenarron ari zen lanean, Azkoitin. Bi enpresetako langileek lanuztea egin zuten martitzenean, senideei babesa erakusteko. Beste bi hildakoak Citroen Xsara Picasso autoan zihoazen nazionalitate errumaniarreko bi gizonezko izan ziren. Ibilgailu horretan 20 urteko gizonezko bat ere bazihoan, eta Donostia Ospitalera eraman zuten larri zaurituta. Gainerako zaurituak 70 eta 68 urteko senar-emazteak (Mercedes auto-koak) eta Kia Ceed autoan zihoazen autoeskolako 58 urteko gidaria, eta 22 urteko ikasle emakumezkoa izan ziren.

30 bat zuhaitz landatu zituzten LH6ko ikasleek Zuhaitz Egunean

Zuhaitz Eguna ospatu zuten atzo Elgoibar Ikastolako eta Herri Eskolako LH6ko ikasleek. Urruzunon, Albitxuriren magalean landatu dituzte zuhaitzak Udal Brigadako langileek lagunduta. Guztira 30 bat zuhaitz landatu zituzten.

Hala, 2017ko Zuhaitz Egunean parte hartuko duten ikasleek jarraipena eman diete aurreko ikasturteetan beste ikasle batzuek, baso bat sortzeko abiatutako lanari.



Herri galdeketa posta bidez bozkatzeko aukera

Elgoibartik kanpo bizi diren elgoibartarrek ere izango dute aukera maiatzaren 7ko herri galdeketa botoa emateko, posta bidez. Interesatuak mezu bat bidali behar dute elgoibarged@gmail.com helbidera, martxoaren 31 baino lehen. Ondoren, boto paperak eta bete beharreko baldintzak zehazten dituen informazio-orriak jasoko dituzte. Maiatzaren 7an 46.500 herritarri emango die hitza Gure Esku Dagok Debabarrenean. Elgoibarren, adin eta kolore askotako 30 bat laguneko taldeak hartu zuen galdera(k) erabakitzeko ardura, eta adostu zituzten bi: "Nahi al duzu gaur egungo estatus politikoa aldatzea?" eta "Nahi al duzu euskal estatu independentea?".

Lanbide Heziketaren azoka martxoaren 29tik 31ra

Martxoaren 29tik 31ra bitartean Debabarreneko Udalek eta eskualdeko Lanbide Heziketako zentroek #ABIAN Debabarreneko III. Enplegu eta Lanbide Heziketa Azoka egingo dute, Debegeza garapen agentziarekin elkarlanean. Eibarren izango da, Armeria eskolako patioan.

#ABIAN Azokak lana bilatzen ari diren pertsonen eta lanposturen bat betetzeko beharrezkoak diren inguruko enpresen arteko topagune izan nahi du. Horrela, 70 lanpostu baino gehiago eskaintzen ditu, arlo desberdinetan. Lan bila dabilen pertsonen debegeza.eus webgunean jaso dezakete lan-eskaintza hauen guztien berri eta bertan eman ahal izango dute izena, martxoaren 20a baino lehen. Data horretatik aurrera, martxoaren 27ra arte, lehen hautaketa egingo da eta, azkenik, martxoaren 29an, 30ean eta 31an, ABIAN Azokan bertan, euren lantaldeak osatzeko profesional bila dabilen enpresek egingo dituzte azken lan-elkarrizketak.



Jabi Agirre, Andoni Segundo, Justo Arriola eta Iñaki Larrañaga.

Heroinaren garai ilunak mintzagai



Justo Arriolaren *A los pies del caballo* liburuaren aurkezpena egin zuten joan zen astean Elgoibarren, eta horren harira, heroinak Euskal Herrian, Epainian eta, bereziki, Elgoibarren izandako eraginari buruzko mahai-ingurua antolatuz Gaste Asanbladak eta Errotatxo drogomenpekotasunaren prebentzio-rako elkarteak. Justo Arriola, Andoni Segundo Errotatxoko kidea eta Jabi Agirre 80ko hamarkadan Gastezko kide izandakoak osatu zuten mahai-a, eta Iñaki Larrañaga gaurko Gaste Asanbladako kideak gidatu zuen solasaldia. Kultur Etxeko hitzaldi gela txiki geratu zen. Ikusleen artean 80-90eko garaia bizi izan zutenak zeuden batetik, baina baita garai hura ezagutu ez zuten gazteak ere.

Justo Arriolak hartu zuen hitza lehenengo. Interneteko foro batean eztabaidan zebilela sortu zitzaion liburua idazteko ideia. Justok heroinaren zabalpenari buruzko tesi argia dauka. Bere ustez, indar polizialek ahalbidetu zuten heroinaren zabalpena Euskal Herrian, eta hori arrazoitzeko hainbat eta hainbat argudio bildu ditu liburuan. Drogak munduan, Espainian eta Euskal Herrian izan duten eragina jasotzen du batetik, eta azkenik, Elgoibarrera ekartzen du gaia. Heroinak 80ko eta 90eko hamarkadetan Elgoibarren izandako eragina biltzen du. Tarte zabala hartu zuen gai honek mahai inguruan. Heroina oso azkar zabaldu zen Elgoibarren, eta heroinan engatxatutako gazteen kopurua handia izan zen. Gaste horiei eta euren senideei laguntzeko sortu zen Errotatxo. Andoni Segundok azaldu zituen zeintzuk ziren Errotatxoren hiru lan ildoak: drogomenpekotasuna zutenei eta senideei laguntzea, prebentzioa lantzea eta erakundeekin zubi-lanak egitea. Eta egin behar izan zuten, bai. Jabi Agirre garai hartako Gastezko kideak gogoratu zuen garai hartan gazteen eta Udalaren arteko harremanak zailak zirela. Maalan eraiki zuten estreinako gastezkoa. Gazteek eurek egin zuten lan guztia, eta helburua oso garbi zeukaten: gazteak biltzeko leku bat zen Gastezkoa. Hasieratik heroinaren kontrako jarrera hartu zuten, herrian askok kontrakoa uste zuten arren. Oroitzapen onak ditu Gastezkeari buruz, eta haien egindako

lanari esker, gaur egun oraindik Elgoibarren Gastezkoa dagoela adierazi zuen.

Mahai-ingurua bukatzeaz zela ikusle batek hartu zuen hitza, eta ETak narkotrafikoaren kontra hartu zuen jarrera aipatu zuen. Bere ustez, ezin zen mahai-ingurua bukatu gai hura aipatu gabe. ETak hainbat lagun hil zituen droga trafikatzeko leporatuta, eta horietako bi lagun Elgoibarren hil zituen: Patxi Zabaleta eta Sebastian Aizpiri. Ikusle honek esan zuenez, oraindik inork ez du frogatu bi herritar horiek trafikatzailerak zirenik.

Justoren liburuan 61 abizen daude jasota heroinaren eraginez Elgoibarren hildakoen artean, baina gehiago izan omen ziren. Hasieran zenbatzen hasi zirela azaldu zuen Andoni Segundok, baina gerora zenbatzeari utzi zioten, askok ezkutatu nahi izaten zutelako. Hala ere, Elgoibar da Bermeorekin batera Euskal Herrian heroinaz jende gehien hil den herria. 'Zergatik?' galdetu zuen ikusleetako batek Kultur Etxean. Andoni Segundok esandakoaren arabera, Osakidetza berak ere ez dauka horren azalpenik, baina gogoratu zuen garai hartan Udalak Elgoibarren hartutako erabaki bat: botiketari xiringak saltzea debekatu zuten. Onerako ari zirelakoan, sekulako kaltea eragin zuen horrek. Lapurretak hasi ziren, atxiloketak, sarekadak tabernetan... Sarekada horietako bat ekarri zuen gogora Jabi Agirrek. Lojantzi tabernan zegoen ostiral gau baten kafe bat hartzen, Guardia Zibila iritsi zenean. Furgonetan sartu zituzten hogeitaz gazte, eta Eibarko kuartelera eraman zituzten. Hogeitaz gazte horiek zituzten droga-pilulak elkarren artean banatu zituzten furgonetan, inori ezer ez harrapatzeko, eta pilula poteak furgonetan bertan geratu ziren. Sarekada hartan ere oso droga gutxi aurkitu zuten, "interesik ez zegoelako". Justoren tesiarekin bat egin zuten Agirrek eta Andoni Segundok ere, eta salatu zuten droga salmentarako poliziarren baimen osoa zegoela. Elgoibarren heroina lortzea oso erraza zela gogoratu zuten. "Denek zekiten nork saltzen zuen, eta non eskuratu zitekeen".

Herri txikia da Elgoibar, eta 80-90eko hamarkadetan infernu handi bilakatu zen.



Beitiatarren erreleboa

Aita-alabak dira, jeltzaleak biak, eta herria zuzentzeko ardura zer den probatutakoak. Aita, Lucio Beitia, lau urtez izan zen Elgoibarko alkate, 1983. urtetik 1987ra, eta alabak, Anek, bigarren urtea beteko du ekainaren 13an alkate karguan. Garaiak, Udalaren antolamendua eta lan egiteko moduak ere asko aldatu dira bataren garaitik bestearenera, eta politika ikuskera bera izan arren, zaila egiten zaie bestearen larrutik hitz egitea. "Hain aldatu da asko dena, ezinezkoa dela konparazioak egitea", dio Anek. Gaia emanda ari dira berbetan, baina natural, etorri ahala. Bistan da alkate-ihiak bezainbat lotzen dituela Beitiatarrek hitz-jarioak eta umoreak.

- AINARA ARGOTIA -

Barre egiten diote elkarri argazkia ateratzeko udaletxeko balkoira irten arazi diegunean. Konplizitate handia nabari zaie. Argazkiak egin bitartean isilik egoteko eskatu dio alabak aitari, baina ez dago haren hitz-jarioa apalduko duenik, eta serio jartzeko eginahalak egin arren, nekez eusten diote barre urduriari. Ez zaie eroso argazkirako posatzea, alabari bereziki. Naturaltasunez dio lanari ez dion erreparoa diola jendeurrean agertzeari, eta aukerarik balu, horixe baztertuko lukeela alkate baten egitekoetatik. Aldamenean du aita, eta lasaiago ikusten zaio. "Urteek lasaitasuna ematen dute", dio.

Elkarrengandik asko dute Lucio eta Ane aita-alabek. Elgoibarko alkate izatera iritsi direlako ekarri ditugu hona, baina alkatetzaz esan ditzaketenek edo izan dezaketek ikuskerak baino gehiago berdintzen ditu izaerak. Kontraesana ere eman dezake, baina ez, "urduriak eta pazientzia handikoak" dira; hitz-jario handikoak eta tematiak, "hasitako gauzak bukatu zaleak". Alkatetzaz, baina, nork bere ikuskera du. Eta ez alferrik.

Oso garai ezberdinetan tokatu zaie alkate-ihia hartzea. "Dena egiteko zegoenean sartu nintzen ni udaletxean. Konparaziorik ere ez dago; gaur dena da diferentea", zehaztu du Lucio. 1983. urtean hartu zuen alkatetza, eta legegintzaldi bat bete zuen agintean. Debarra da sortzez, sei neba-arrebetan laugarrena, familia abertzalekoa. Politikagintzara, baina, lagunek eraman zuten, ideologiak edo bokazioak baino gehiago.

Francoren diktadura garaian ibilia zen bera ere manifestazioetan-eta, "gazteak ginen, eta borrokarako ere, gaur baino sasoi hobea geneukan", baina politikak ez zuen bereziki erakartzen. Enpresa mundua zen berea. Lanbide Heziketan maisu ibilia zen ordurako Mekan, eta tratu handia zeukan orduko Elgoibarko enpresa-jendearekin. Zubacor enpresa zuzentzen zuen beste lagun batzuekin batera, eta Izpin, *Pedrosanean*, jardun osoz lan egin. "Eskola amaitu berritan sortu genuen Zubacor zazpi lagunek. Orduan erreza zen. 50.000 pezeta bildu, eta baze-

neukan enpresa! Hori bai, irabaziak... Gutako batek hala esaten zuen: 'Gure bilobek ikusiko al dute irabazirik!', eta andrarik ere ez zeukan berak [karkar]". Enpresa zuen mundua, baina gauzak zer diren! Oso lagun zituen bi gizonek, Roman Galarraga Debako alkate zenak eta Luis Arrieta Elgoibarkoak (1979-1983 legegintzaldia), afaritara gonbidatu zuten, eta tentatu zuten alkatetzarako. "Alkate ni? Nola izango naiz ni ba alkate, seigarren umea jaio berri dugunean etxean!", esan nien, baina haiek baietz. 'Erraz egingo dok hik hau!', bota zidaten. Etxera joan eta esan nion umez kargatuta neukan emazteari: 'Nik ez dut nahi, baina zer egingo dut?' Eta hark: 'Zeuk ikusiko duzu hori!'. Ez baietz, ez ezetza; "okerragoa". Aurrera egitea erabaki zuen berak hala ere, eta Luis Arrietak aurkeztu zuen hautagaitza alderdian. 1983ko maiatzean hartu zuen kargua Lucio, eta hartu eta bat, lehenengo itolarria, "agintaldiko unerik ilunena, gogorrena". Urak hartu zuen Elgoibar abuztuan, Txiki Egunez —Babes zibilerako Legerik ere ez zegoen artean—. "Zelako hondamendia! Gero etorriko zen okerragoa, 1988an, baina zer zen hura! Erraz gobernatuko nuela herria? *Letxes*". Egunak egin zituen etxeratu gabe.

Sanbartolomeak ziren, eta Deban harrapatu zuen hondamendia Lucio, oporraldian. Urak herria hartu aurretioxan, baina, Elgoibarrera egin zuen bisita, jaietara etorriak ziren Ane eta Arantxa alaben bila. "Errekari begiratzera ohituak geunden euri asko egiten zuenetan, eta Mendarotik pasa aurretioxan, Kilimoi errekarari errepartzeko eskatu zenigun. Handi-handi zetorren, bizi-bizi. Tomas etorri zen gero Debara zure bila, ibaia gainezka egitear zegoela esanez. Hiru-lau bat egun egin zenituen etxeratu gabe", gogorarazi dio Anek aitari. Gerrira arteko botak jantzi eta pala eskuan hartuta ibili zela oroitu du Lucio. "Botak kentzeke egin nituen hiru egun". Ondo gogoan du Anek. Gidabaimena ateratzeko prestatzen ziharduen garai hartan: "Norbaitek gidabaimena atera ezean, autobusa erosi beharko zuela esaten zigun aitak, eta horretan ari nintzen, ikasten. Gava zen, eta sukaldean nen-

*Oso lagun zituen
bi gizonek, Roman
Galarraga Debako
alkate zenak
eta Luis Arrieta
Elgoibarkoak,
proposatu zioten alkate
izatea Lucio Beitiari*



goen. Irtsi zen aita, akabatuta, eta botak kentzen laguntzeko eskatu zidan. Eta Kentzen ari nintzela, lo seko gelditu zen"

Laguntasun eske pasatu zituen egunak hara eta hona Luciok. Udala %47an zorpetuta, herria lokaztuta, etxeko tailerra urak hartuta... etsipenak ere hartu zuen. Jose Antonio Ardanza zen orduan foru diputatua eta harengana ere jo zuen. 'Erosi behar dituzuen eskabadorak eta trasteak, ezin gara orain dauzkagunak obretatik ateratzen hasi-eta. Erosi eta konponduko gara gero', esan zidan. Horregaitik dut oraindik hain hartueman ona berarekin".

BESTE GARAI BAT

Lan egiteko modua "goitik behera" aldatu da, garaiak bezalaxe. Garai zailak ziren haiak, gaurkoen aldean. Elgoibarren droga kontsumoa handia zen gazteen artean, eta egoera politikoa oso gaiztotuta zegoen. ETA-ren indarkeria, atxiloketak, langile borroka... "garai oso konplikatu zen". 17 bat urte zituen Anek, eta bazeukan ikusten zuenaren kontzientzia. "Askotan tokatu zitzaidan aitaren kontrako kartelak ikustea. Dianan sartuta jartzen zuten, edo akabatuko zutela idazten zuten bere argazkiaren ondoan. Izen-abizenekin jartzen zuten gainera: 'Lucio Beitia Mugabure, akabatuko zaitugu'. Gogorra da hori etxekoentzat". Indarkeria bere larruan

bizi zuenak hartu du hitza, behin Santander banketxeko atarian urkatik zintzilik jarri zutela oroitzeko. "Goizean tailerrera iritsi nintzean lankide *mantxego* bat etorri zitzaidan, estu. 'Oye, Lucio, has visto lo que te han hecho. Te tienen ahorcado en la puerta del Santander', berak. 'Ah, bueno, tranquilo. Ya pasará'", nik. Zer egingo nion ba!". Hiru egun egin zituen Beitiak *urkatuta*, eta txikiteoan, beti saihesten zuen handik pasatzea. Udaltzainak "ez ziren kentzera ausartzen edo ez zuten nahi" eta berak kendu zuen laugarren egunean. "Nik orduan ere esaten nien kontrarioei eta gaur ere bai: gauzak aurpegira esateko adorerik baldin badau-

kazue, *bien*; etorri eta konponduko gara, baina bestela, zeuek baretu zeuen haserre, hori ez da-eta pertsonen jokabidea. Baina lau urte luze egiten dira, bai".

Legegintzaldia bukatu zuen, baina berriro saiatzeko gogorik gabe. Txikiteoan lagun za harragoak ibiltzen zitzaizkion tentatzen, berriro aurkeztuz gero babestuko zutela esanez, baina lau urte nahikoa luze egin zitzaizkion beste lau urtez ahalegintzeko. "'Apuntáme si quieres para que me marche a Siberia, pero aquí no me ves más'", esan nion lagun erdaldu bati". Udal politikan dena egiteko zegoen garaian sartu zen alkate Lucio, eta "bide urratzaille" izatea egokitu zitzaion bere taldeari. "Denen gusturik ez genuen egingo, baina ar-

*Garai zailak
tokatu zitzaizkion
Lucio Beitiari
alkate garaian.
Elgoibarren droga
kontsumoa handia zen,
eta egoera politikoa
oso gaiztotua zegoen*

dura handiz bizi izan genuen guk, dedikazio handiarekin". Ufalen ostean konpondu zituzten ubideak eta zubiak, hitzartu zuten Mendaroko ur biltegitik ura ekartzea ere —"eta hori independentzia lortua zutela ordurako!"—, eta ospitalea Mendaron egin zedin ere hamaika batzar eta bidaia egin zituen. Ernest Lluch zen orduan Osasun ministroa [ETAk hil zuen 2000. urteko azaroaren 21 ean] eta gogoan du Mendaroko etxepe batean nola bildu ziren berarekin Juanito Loiola orduko Mendaroko alkatea eta beste zenbait udal ordezkari. "Gizon zabala zen, gertukoa". Madrilera ere joan ziren gero 17 alkate ospitalak handiagoa izan behar zuela eskatzera.

ALKATE, BESTEAK BESTE

Liberatu gabe erantzun zien Luciok alkate-ardurei eta bestelakoei, baina hein handi batean emazteak [Ana Mari Arriolak] etxeko arduetatik "liberatu" zuelako. "Meritua emazteak dauka", dio. "Sekulakoa, gainera. 'Eta nola egiten zuen gure aitak galdeztzen duzu?'. Bada esango dizut: beste gauza askoren artean gizonetzkoa ere bazen/bada gure aita. Hori bai, lehen eta orain ere bai, etxeko babesik ezean jai dago hemen". Generoaren gaia atera du Anek, eta galdetu diogu alkatea gizonetzkoa ala emakumezkoa izan, alderik ikusten duen. "Bai, kritika merkeak errazago egiten zaizkio alkate emakumezkoari. Gehiago demonstratu beharra daukagu guk denean". Lanera irtetea bera ere gizonetzkoa askoz errazago dutela dio. "Guri eskaintzen digute zerbaitea eta hor hasten gara gure mapa osatzen, zirkuito guztiak lotzen eta saretzen, eta hori baita laguntzailerik onenak inguratuta ere. Zirkuito guztiak batzeko gai bagara bakarrik ausartuko gara baietza ematera. Guk gehiago pentsatzen dugu edozer erabaki aurretik, hala hezi gaituztelako. Gizonetzkoek errazago ematen dute baietza".

Alkatetzara aurkezteko asmoaz alabak berak informatu zuen Lucio. "Satisfazio handia izan zen niretzat", dio Luciok. "Poztu nintzen". Hiru gomendio eman zizkion alabari "Elgoibar bizigarria" egiteko zuen erronkari heldu bezperetan: pazientzia izateko, denei entzuteko eta atea beti zabalik edukitzeko. "Ez nituen berriak aholku horiek. Niretzat gurasoak beti izan dira erreferente, eta askotan eskatu diet aholkua; baita lehen ere. Hiru printzipio horiek beti jaso ditut etxean". Familian bertan pentsakera ezberdinekoak daudela esan du, eta asko eztabaidatzen dutela. "Horrek ez du txarririk. Eztabaidatzea oso ona da, beti ere errespetuz eta errespetutik". Luciok hartu du hitza. "Nik beti esaten diot aterik ez ixteko inori. Ordenagailuak-eta hasi zirenetik dena aldatu da, baina nire sasoian etxera ere deitu izan zidan jendeak, hau edo beste esateko. Tratua gertuagokoa zen lehen. Dena aldatu da". Anekdotak dozenaka konta ditzake

Anek, baina bat ekarri du gogora. Amak errekadu bat egitera bidali zuen behin, eta autorik ez garajejan. Sakelako telefonorik ere ez zen garai hartan, dei batekin aita non zen berehala jakitzeko eta abiatu zen plazaruntz, autoa han egongo zelakoan. "Hantxe zegoen kotxe txikia, zabalik, gehienetan bezala, behar genuenok hartzeko. Diputazioko norbait etorria zen Elgoibarrera eta harekin bazkaltzera-edo joana zinen zu", esan du aitari begira.

Garaiak eta lan egiteko moduak aldatu dira bai, eta alde ona eta txarra ikusten dizkio alabak horri. Gaurko antolamendua, izapideak, tramiteak... dena da burokratikoagoa. "Gaur sailak, taldeak... daude, eta nork bere zeregina dauka. 'Alkatea bere bakardadean' hori beti egongo da, beti biziko du halako bakardade moduko bat alkate batek, baina gure egitekoa asko erraztu da gure aitaren sasotik. Gaur, bideak eginda daude, eta hauek, berriz, eurek sortu behar izan zituzten". Garai politikoak ere baretu dira, eta alde horretatik ere "lasaiago" ari direla aitortu du, baina alkatea beti izango da alkate, Lucioren hitzetan. "Hauek ere sekula ez dute denen gustua egingo, ezin da-eta". Hartuemanerako dohaiak ikusten dizkio, baina, alabari. Bere ikasketek eta gaur arteko bere ibilbide profesionala oso lagungarri izango zaizkiola uste du Luciok, oso kolektibo ezberdinekin lan egitea tokatu zaiolako Aneri. Irekia, gertukoa eta zorrotza izateko eskatzen dio eta egiteko beti herritarren alde. "Nik nire garaian kontrario nituen batzuk oso lagun onak ditut orain. Batzuetan halakoak gara pertsonak. Atzo ez ginen elkarrekin jarriko argazkirako eta gaur elkarrekin hara eta hona. Denborak jartzen du jendea bere lekuan". Ez du horrek kezkatzen alaba: "51 urte dauzkat eta ilea ere zuritu zait". Sinisten du talde-lanean eta garbi du zein duen erronka: "Elgoibartarrak Elgoibarren gustura bizitzea".

Ez du, gaur, gehiagorako astirik Anek. Gobernu Batzordea dauka, Lucioren garaian batzorde iraunkorra esaten ziotena, eta zain dauzka gainerakoak. Lucioren hitz-jarioak, baina, ez du etenik. 18:30ak dira. Txikiteo ordurako ordubete pasatxo falta du, eta trago bat hartzera gonbidatu gaitu. Alabak meritua duela dio; "meritu handia", gaurko gizartea oso delako exijentea. "Lehen, premiei erantzuten genien, sortu ahala; ez zegoen gaur besteko planifikaziorik. Orain, dena aztertu behar da". Klean behera doala, ezker-eskuin agurtzen ditu herritarrek. "Elgoibar hau da. Sasoi batekook denok ezagutzen dugu elkar, eta horri eutsi behar diogu". Sozializatzeari izugarritzko garrantzia ematen dio, eta txikiteoa "sakratua" egin du. "Agintzen daudenek ezagutu behar dituzte herritarrek, eta guk, besteok, jakin behar dugu Elgoibar denok egiten dugula. Denok jarri behar dugu geuretik, eta lagundu behar diogu elkarri".


*Erreferente izan ditu
beti Anek gurasoak,
eta alkatetzarako aitak
hiru aholku eman
zizkiola oroitu du:
izateko pazientzia,
denei entzuteko eta atea
beti zabalik edukitzeko.*

▶ JOSEBA APAOLAZA

AKTOREA

Herriko Antzokiko oholtza futbol zelai bilakatuko dute datorren barixakuan, izan ere, C.D. Elgoibarren mendeurreneko ekinzen barruan 'Jokoz kanpo' antzezlanaren taularatuko du Borobil Teatroak. 20:30ean hasiko da emanaldia, eta doan izango da. Futbola du oinarrian obrak, eta umorearen bitartez, Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Asier Sota aktoreek futboleko jokoz kanpo dauden hainbat balore erakutsiko dituzte. Futbolaren munduari buruzko obra satirikoa da, eta erreflexiorako bidea emango die ikusleei, bereziki, futboleko murgilduta dauden guraso eta entrenatzaileei. Joseba Apaolaza (Urretxu, 1960) aktoreak eman dizkigu obrari buruzko azalpenak.

- AINHOA ANDONEGI -



"Irabazi nahi horretan oinarrituta hainbat jokabide zilegitzat eman ditugu"

♦ Zertan datza 'Jokoz kanpo' obrak?

Obrak hitz egiten du, batez ere, maila txikietakoa futbol taldeetan ematen diren hainbat gertakizunen inguruan. Epaiketako moduko bat egiten da, eta kasu honetan epaituak bi entrenatzaile dira, partida batean, txapelketa bateko finalean, liskarretan hasi eta bai beraien artean eta baita arbitroarekin borrokan bukatzen dutelako. Horrela hasiko da obra, eta hortik aurrera flashback moduko bat egiten dugu, kontatzeko nola iritsi garen egoera horretara eta azaltzeko zeintzuk izan diren liskar horren osagaiak. 15-16 eszenatan kontatuko dugu istorioa.

♦ Zein izango da zure papera?

Bi pertsonaia horien inguruan uniber-

tso moduko bat sortzen dugu, eta horretarako hainbat pertsonai desberdin ditugu. Gutariko aktore bakoitzak hiruzpalau paper beteko ditu, kontakizunaren ildo nagusiarri laguntzeko. Nire pertsonai nagusia Manu da, bi entrenatzaileetako bat. 11 urteko umeen taldea entrenatzen du Manuk, eta beti irabazten ohituta dago. Horrez gain, beste entrenatzailearen lagun minaren papera ere egiten dut, eta baita futbol botak saltzen dituen denda bateko langilearena ere.

♦ Nori zuzendutako obra dela esango zenuke?

Publiko zabalarentzako antzerki ikuskitzuna da, baina bereziki, eskola kirolean edo maila txikietakoa futbol taldeetan sar-

tuta dauden entrenatzaile eta gurasoentzako moduko obra da. 11 urteko mutikoen taldeetako entrenatzaileak dira protagonistak, baina obraren diskurtsoa eta gakoak ulertzeko gutxieneko adin bat izatea eskatzen du obrak. 14-15 urtetik aurrerakoek hobeto ulertuko dutelakoan nago.

♦ Realak eta Athletic-ek ere interesa erakutsi dute, antzezlanak sustatzen dituen baloreekin bat egiten dutelako.

Bai, hala da. Obrak diskurtso propioa dauka, eta gainera, gaurkotasan handiko gaia lantzen du. Horrelako liskarren berri sarri izaten dugu, eta erakusten dugu zein muturreko egoerak ematen diren, futbol profesionalean bereziki,

baina maila txikiagoetan ere bai.

♦ **Nolabait esateko, futbolean jokoz kanpo dauden baloreak kritikatzan ditu obrak?**

Kritikatu baino gehiago erakutsi egiten ditugu egoera horiek, ikusleak berak erre-flexionatu dezan eta erabaki dezan ia egoera horiek zuzenak diren edo jokoz kanpo dauden. Horrela bukatzen dugu ikuskizuna.

♦ **Bi entrenatzailereren arteko liskarrak dira obraren ardatz. Horrelakoak sarri ikusten dira futbol zelaietan. Nola eragiten diete jokabide horiek umeei?**

Gurasoek askotan gure jarrerak eta jokabideak kutsatzen dizkiegu gure seme-alabei. Gizarte honetan ere oso nabarmen azaltzen dira zeintzuk diren arrakastaren bideak, eta kirola izan daiteke horietako bide bat. Futbola bilakatu da hainbat frustrazioren erakusle, eta nik uste dut jarrera horiek baztertu egin behar direla. Obra honekin erakutsi nahi dugu apur bat zein den egin beharreko bidea. Gurasoek askotan nahi izaten dugu gure semea futboleko izar izatea, eta nahi horretan hainbat muga zeharkatzen ditugu gure portaeretan. Ikusi besterik ez dago zenbat aldiz ematen diren arbitroen kontrako irainak eta abar luze bat. Askotan gurasoak izaten gara umeak eurak baino okerragoak.

♦ **Futbolearen eta kirolean, oro har, irabaztearen baloreak indar handiegia duela uste duzu?**

Bai, izan daiteke, eta horrek kirolaren oinarria ezkutuan uzten du, lehiari lehen-tasuna emanez. Beste gauza guztien gainetik, ematen du kirolean garrantzitsuena irabaztea dela eta irabazi nahi horretan oinarrituta hainbat jokabide zilegitzat ematen dira askotan.

♦ **11 urteko mutikoen talde bateko entrenatzailea zara obran. Maila horietan futbolariek ez al luke jolasak izan behar, jokoa baino gehiago?**

Bai, hala izan beharko luke, ni guztiz ados nago. Baina ez dakit zer gertatzen den. Kostatu egiten zaigu gauzei tamaina hartzea eta hori da arazoa. Ez gara kontrolatzen futbolariek hein handi batean plazer

bidea izan behar duela. Irabaztearen grina hori oso nabarmena da obrako bi entrenatzaile horien artean. Umetatik ezagutzen dute elkar, eta elkarren arteko lehia handia dute. Beti nahi dute bestearen gainetik gelditu eta hori lortzeko edozertarako prest daude. Azken batean, lehia pertsonalak gainditzeko askotan erabiltzen dira 10-11 urteko umeak.

“Hausnarketarako bidea ematen du, baina bereziki, barre egiteko eta ondo pasatzeko obra da”

♦ **‘Garrantzitsuena parte hartzea da’ esaldia askotan esaten da, baina, benetan sinisten dugu esaldi horretan alahopean esaten dugu?**

Diskurtso horrekin ere parodia bat egiten dugu. Beti entzun izan dugu, bai, garrantzitsuena parte hartzea dela, baina nire pertsonaiak konbentzimendu handiegirik ez dauka horretan. Esaldi hori esaten hasiko da, baina diskurtsoan nahastu egiten da eta esaldia bera amaitzea ere ez du lortuko. Esan beharra dago antzerki obra hau umore klabean eginda dagoela, ez dugu ahaztu behar antzerkia egiten gaudela. Gure helburua ikusleei une atsegin bat eskaintzea da, baina era berean, kirolean agerian dagoen errealitate hori taulara ekarri nahi izan dugu.

♦ **Kiroltasunaren baloreak galdu egin direla uste duzu?**

Erabat galdu direnik ez nuke esango, baina galzorian daude. Maila txikietan oraindik badaude, baina mailaz maila igotzen, zenbat eta gorago igo, beste interes batzuk agertzen dira kirolean, kiroltasunari mesederik egiten ez diotenak. Diru asko mugitzen du futbolariek eta interes ekonomiko handiak sortzen dira. Horren

aurrian kiroltasunaren baloreak galtzen joaten dira, eta jokoa bertan izan beharko lireratekeen balore nobleagoen falta nabariko da.

♦ **Komunikabideek zenbaterainoko erantzukizuna dute kiroleko baloreen sustatzean?**

Nik aipatu nahi nuke kontu bat obran agertzen ez dena, baina uste dut aipatu behar dela, eta da apustuen kontua. Apustuen mundu hori indar handiz sartu da gure gizartean, eta medioek ere, lotsa handirik gabe, babesten egiten dute. Apustu etxeek indar ikaragarria hartu dute, eta horrek arazoak ekar ditzake. Beti existitu izan da ludopatia, baina gaur egun apustuen kontuak hartu duen dimentsioa ikusita, etorkizunean arazo hau areagotu egingo dela esango nuke.

♦ **C.D. Elgoibarrek 100 urte bete ditu aurtun, eta mendeurreneko ekitaldien barruan antolatuta dute ‘Jokoz kanpo’ obra. Zein mezu helaraziko zenieke klubeko entrenatzaile, guraso eta ardura-dunei?**

Nik, batez ere, gonbidapena egingo nieke antzerkia ikustera etortzeko; ondo pasatzera eta ikuskizunaz gozatzera. Obra honekin ikusiko dute nolakoak garen eta nola jokatzeko dugun kirolean. Jokabide horien inguruan pentsatzeko eta hausnartzeko aukera ona eskaintzen du antzezlanak. Gu ez gaude hemen inor epaitzeko, baina gure obrak uste dut balio behar duela gutxienez jokabide horiei buruz hitz egiteko eta pentsatzeko. Hausnarketarako bidea ematen du, baina du-darik gabe barre egiteko eta ondo pasatzeko antzezlanak da.

♦ **Zu zeu futbolaria al zara?**

Bai, beti izan naiz, ume-umetatik. Nire seme zaharrenak ere Real Union taldeko jubeniletan jokatzeko, eta horrek aukera eman dit mundu hori gertutik ezagutzeko.

♦ **Beste herri batzuetan taularatu duzue antzezlanak. Nolako harrera izan du?**

Oso ona. Antzerkia bi hizkuntzatan eskaintzen dugu, euskaraz eta gaztelaniaz, eta orain arteko emanaldietan jendeak asko disfrutatu du. Ondo pasatzeko ikuskizun atseginak da.

Kirolerako eta aisialdirako gune berria sortuko du Mendaroko Udalak ospitale azpian



Parkearen ikuspegi bat, aisialdi gunetik begiratuta.

Kirola egiteko eta aisialdirako gune berri bat izango du Mendarok 2018 bukaerarako. Hala iragarri du Udalak. Ospitale azpiko parke ingurua egokituko du horretarako [egurrezko parkea eta piramidea dauden ingurua] eta obrak 627.000 euroko aurrekontua izango du, BEZ barne. Horietatik 130.000 euro aurtengo aurrekontutik hartuko dituzte, eta gainerakoa altxortegi gerakinarekin finantzatuko dute. Padelarako kantxa, kirola egiteko dozena bat makina, kirol anitzerako kantxa, skate-parke txikia eta haurrentzako txorrot-gunea eraiki asmo dituzte, besteak beste. Udaltzatzen Osoko Bilkurak onartu behar du proiektua ondorengo esleipen-tramiteak hasteko, baina Mendaron EHBilduk gehiengo duenez, proiektuak badu argi berdea. Aurrez, baina, erakusketa publikoa jarriko dute jubilatuen lokalean, obraren plano eta gainerako zehaztapenekin. Martxoaren 18tik apirilaren 18ra egongo da erakusketa zabalik (astelehentan izan ezik); goizez, 10:00etatik 13:00etara, eta arratsaldez, 17:00etatik 21:00etara.

Aspaldikoa da Mendaron kirolgune bat egiteko eskaera. Herriko hainbat lagun eta Udaleko hainbat ordezkari jardun dira Ospas-Gaingo futbol-zelai zaharra egokitu eta futbol eskola sortzea aztertzen ere, Italiako A.C. Milan taldearen futbol eskolarekin elkarlanean, baina proiektu hori baztertu dutela jakinarazi du

Sonia Garcia alkateak –Gatika (Bizkaia) du Milanek Mendaron sortu asmo zutenaren pareko eskola: <http://msceh.com/gatika.php>-. “Apustua beste bat da orain: kirola aire librean egiteko guneak lehenesten dira. Gipuzkoako Foru Aldundiaren irizpideak jarraitu ditugu. Diputazioak dio gaur egun dauzkagun baliabideak partekatu behar ditugula, bereziki bailaran, eta haien ustez, frontoi estaliarekin eta ikastolako patioarekin, Mendarok beteta du bere ezaugarriak herri bati dagokion kupa”, esan du Soniak. Mendaron kiroldegia eraikitze eskaera ere jaso dute Udalean, baina alkateak garbi dio kiroldegia ez litzatekeela bideragarria, mantenu-gastuek izugarri handituko luketelako gastu publikoa. “Horrelako azpiegitura bat mantentzea ezinezkoa zaigu”.

Hala, udaleko arkitektoari eskatu zioten ospitale azpiko gunerako proiektua idazteko, eta duela hamabost bat egun aurrez zien hark zinetzoki guztiei. Proiektuan bi gune bereizten dira, espazio berean: batetik, kirolerako gunea. Padel pista estaliak (olanazko estalkia izango du) eta estali gabeko kirol anitzerako kantzak hartuko dute hor espazio handiena. Haien tartean, jarriko dituzte kirola egiteko hamabi makinak, padelerako kantxaren estalkipean, babesean, baina aire librean. Albo batera eraikiko dituzte skate-parkea eta komun publikoa,

eta iturria, beste aldera. Kirol gune horren albo batera aisialdirako gunea ere egokituko dute. Haurrentzako txorrotak jarriko dituzte, eta inguruan mahaiak eta aulkiak, ezinduentzako egokituak denak ere. 3.000 metro koadrotik gorako azalera izango du espazio horrek guztiak.

Gune berria egokitzearekin batera, ospitalera arteko arrapala ere berrituko dute, eta obrak eskatzen dituen beste egokitzapen batzuk ere egingo dira, bereziki goiko partean. "Gaur, goiko parte horretako arrapalak %8ko malda dauka, eta irisgarritasun printzipioak betetzeko, gehienez, %6koa izan behar du, beraz tramo hori berritu eta onduko dugu. Era berean, gune berria luzaide tabernarekin lotzeko bidea ere egin asmo dugu". Obrak noiz hasiko diren zehazterik ez dago, esleipen prozesua bera ere ez delako hasi oraindik, baina 2018. urteko udarako bukatuta egon beharko luke proiektuak, alkateak aurreratu duenez.



Aisialdi gunea, eta bigarren planoan, kirol gunea izango dena.



Skate-parkea, padeleko kantxa, eta kirol anitzerakoa.

Beste zenbait obra

Etxebarrri parkea berritu du Udalak. Pergola kendu, ingurua txukundu eta mahai-jokoen txokoa sortu du: partxisa, xake-taula, igel-jokoa, karta-jokorako mahaiak eta laberinto bat jarri dituzte. Ostiralean atondu zuten txokoa, bere argiztapen eta guzti. Kaleko argiak pizten direnean isotuko dira jolas-mahaiak eta aulkiak ere. Era berean, herriko aulki publikoak berritzen ere badihardu Udalak. Markatuta dituzte konpondu beharrekoak eta hasi dira berriak jartzen. "Margotzeko eta barniza emateko kendu ditugu batzuk, eta okerren daudenak, polietanozko aulkiengatik ordezkatzeko ditugu". Bestalde, herriko hainbat gunetan, Mañuska kalean eta Trinitate kaleko plazan, lorontzi handiak jarriko dituzte, apaingarritzat.

Sustrai akordeoi taldearen kontzertua, etzi

Sustrai akordeoi taldeak kontzertua eskainiko du etzi, hilak 19an, San Agustín kulturgunean (13:00etan). Maite Janeirok zuzenduko du kontzertua.

Martxoaren 25ean izango da Motxaila Eguna

Martxoaren 25ean, bihar zortzi, ospatuko dute Mendaron Motxaila Eguna. Ohi legez, Aitz Beltz kobazulora egingo duten ibilaldiarekin hasiko dute eguna. 9:00etan batuko dira, Gaztetxe parean eta oinez egingo dute gorako bidea. Han, Aitz Beltzen, hainbat ekintza egingo dituzte: antzerkia, poesia errezitaldia, musika zuzenean... Ondoren, 15:00etan, herri bazkaria izango da Gaztetxean. Tzatziki, salmorejoa, motxailapotajea eta motxailbesoa izango dira menuan. Bazkaritarako txartelak salgai daude dagoeneko Aitzbeltz tabernan, 10 euroan. Bazkalostean, *Urteko motxaila izendapena* saioa eskainuko dute Daradarakustikek eta Inozentzio pailazoak.

19:00etan, gaztetxetik abiatuta, poteoan irtengo dira, Agosti eta Barrenarekin, eta gauerditik aurrera, erromeria izango da Gaztetxean, Erokomeri taldearen eskutik. Bezperan, hilaren 24an, bertso saioa (22:00) izango da San Agustinen, Unai Iturriaga, Alaia Martin, Julio Soto eta Jone Uria bertsolariekin. Sarrerak salgai daude Txirristakan eta Morroskillon, 5 euroan.

Iker Jausoro omenduko dute Haundiren eta Aloña Mendiren arteko partidaren atarian

Mendiko istripuan hil zen Iker Jausoro omenduko dute C.D. Elgoibar eta Oñatiko Aloña Mendi taldeek zapatuan Mintxetan elkarren aurka jokatu behar duten partida hasi aurretik (16:30). Oñatiarra zen Iker Jausoro eta Aloña Mendi futbol taldeko jokalaria izan zen gaztetan. C.D Elgoibarrekin ere harreman handia zuen, Futbol Eskolako entrenatzailetariko bat zelako. Bi taldeek, hortaz, omenaldia eskainiko diete Jausororen alargunari eta senideei.

Lagun Taldeko jubenilak irabazle Deba eta Azpeitiko lasterketetako taldekako sailkapenetan



Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolako jubenilen taldea, Ciclos Iturriaga, denboraldi hasiera bikaina egiten ari da. Hiru lasterketa jokatu dituzte orain arte eta azken bietan, Debakoan eta Azpeitikoan, onenak izan dira taldeka. Azpeitikoan jokatu zuten San Jose Sarian, gainera, hirugarren postua eskuratu zuen Jon Astigarraga taldekideak. 163 txirrindularik parte hartu zuten, baina 56k bakarrik lortu zuten amaitzea, eurak eta hai-zeak asko zaildu zuelako proba.

Lagunak Pilota Eskolako benjaminen taldea Gipuzkoako txapelkun

Gipuzkoako taldeen arteko errendimendu txapelketa jokatu zuten Oñatin, eta Lagunak Pilota Eskolako benjaminen taldeak (Ibon Viña, Iker Izagirre eta Peru Bereziartua) irabazi zuen txapelketa, Aretxabaletako taldeari irabazita.



Korrikedada berriro martxan

Elgoibarko Udaleko Kirol Patronatuak eta Berdintasun Sailak, Korrikedada egitasmoa jarri zuten martxan 2014an, Mintxeta Atletismo taldearen laguntzaz. Emakumeak korrika egitera animatzea da ekimenaren helburua, emakumeen artean kirola egiteko ohitura sustatzeko asmoz. Neguko etendia diaren ostean, martxoaren 16an jarri dute abian berriro. Eguenero izango dira saioak Mintxetan, 19:00etan. Lehen hilabetea debalde izango da.

Crystal Cup txapelketan hartuko du parte C.D. Elgoibarreko jubenilen taldeak

Ohorezko jubenil mailan diharduen C.D. Elgoibarreko taldeak Portugalen jokatu den nazioarteko Crystal Cup txapelketan parte hartuko du, apirilaren 12tik 16ra bitartean. Bidaia eta egonaldiaren gastua handia denez, erriak atera dituzte, eta horrez gainera, edariak eta Croqueta y Presumida enpresaren bitartez lortu dituzten krocketak saltzeko postu bat jarriko dute gaur zortzi, hilak 24an, Maalako parkean.

Ibon Serrano hirugarren Neguko Triatloiko Euskadiko Txapelketan

Erronkari Bailarako Neguko Triatloia 7. ekitaldia jokatu zuten martxoaren 11n, Izaban, Nafarroako eta Euskal Autonomi Erkidegoko txapelak jokoan zirela. Beteranoetan hirugarren postua eskuratu zuen Ibon Serrano elgoibartarrak. Saltaka, bizikletan eta iraupen eskian lehiatu ziren parte hartu zuten 63 lagunak.

Martin Hernandezek zazpigarren egin du Pista Estaliko Espainiako txapelketan



Pista Estaliko Espainiako Gazte Mailako Atletismo Txapelketa jokatu zuten joan den asteburuan Sabadellen. Mintxeta Atletismo Taldeko ordezkari Martin Hernandez eta Nerea Sasiain antxitxikiariak jubentzetan lehiatu ziren, 1.500 metroko eta 400 metroko lasterketetan, hurrenez hurren. Hernandezek finalerako sailkatzea lortu zuen, eta zazpigarren egin zuen finalean. Sasiainek, berriz, ez zuen finalerako sailkapena lortu finalerdietako seriean hirugarren egin eta irabazlearengandik 51 ehunekora sailkatu ostean.

Imanol Garaizabal

sentsazio gazi-gozeekin itzuli da Paraguaitik

Euskat Raid Team-Raidaventura.org taldearekin hartu du parte Imanol Garaizabalak Paraguain jokatu den Guarani espedizioan. Bosgarren trantsiziora, kayakean egin beharrekora, ez ziren garaiz ailegatu eta lasterketa nagusiko lehiatik kanpo gelditu ziren. Proba motzagoan jarraitu zuten lehian, eta mendiko bizikletan amaitu zuten raida. Hasiera oso ona eman zioten raidari, baina akats horrek baldintzatu zuen taldearen parte-hartzea. Hori dela-eta, burumakur amaitu zuten proba, ez zutelako asmatu lasterketa gestionatzen. "Ez dakit ba beroak neuronak urtu zizkigun eta erabakiak bihotzarekin hartu genituen buruarekin beharrean", azaldu du Garaizabalek. "Tristea da gure erabaki okerregatik kanpoan gelditzea, baina galtzen denean irabazten denean baino gehiago ikasten omen da", gaineratu du.

Aitzorrotzera mendi irteera egin zuen Morkaikok ikastetxeekin elkarlanean

Debagoienako paraje eta mendiak ezagutzeko aukera izan zuten Morkaiko mendi taldeak ikastetxeekin elkarlanean antolatutako zuten mendi irteran parte hartu zuten lagunek, eguraldiak gehiegi lagundu ez zien arren. Gatzagako Dorletako Amaren santutegitik abiatu ziren, eta Aitzorrotzeko tontorreraino igo ziren. Hurrengo irteera Kalamua mendira izango da, apirilaren 9an. Ikastetxeetan eman behar da izena.



Emaitzak

FUTBOLA

Ordizia 3 – Haundi 1 (Oho. erreg.)
Elgoibar 3 – Segura 5 (1. erreg.)
Bergara 3 – Elgoibar 0 (Oho. jub.)
Elgoibar 5 – Urola 2 (Jub. 1. maila)
Elgoibar 2 – Aloña Mendi 0 (Oho. kad.)
Elgoibar 2 – Aizkorri 0 (Inf. 1. maila)
Elgoibar 2 – Tolosa 3 (Inf. Txiki)

ARETO FUTBOLA

Colo Colo 7 – Concepto Egile 2 (Nazional B)

SASKIBALOAIA

Añorga Saskibaloia 45 – Viento Sur Elg. 53

ESKUBALOAIA

Maristas 32 – Alcorta F.G. 25 (Senior giz.)
Pulpo 12 – Lauko 32 (Senior emak.)
Leizaran 30 – Salento 18 (Sen. giz.)
Ereintza 26 – Beristain 26 (Jub. mut.)
Zarautz 22 – Tecnifuelle Elg. 22 (Jub. nsk.)
Urduliz 33 – Urkunde 23 (Kad. mut.)
C. Astigarraga 28 – Aiala 29 (Kad. nesk.)
Ereintza 12 – Cometel 16 (Kad. nesk.)
Dario 19 – Usurbil 21 (Kad. nesk.)
Bankoa 27 – Legazpi 27 (Kad. mut.)
Modeltek 29 – Egia 22 (Inf. nesk.)
Pneumax 12 – Urnieta 28 (Inf. nesk.)
Leizaran 23 – Bacalaos Alkorta 14 (Inf. mut.)
Murgil 30 – Usurbil A 15 (Inf. mut.)
Bergara 28 – Txarriduna 31 (Inf. mut.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 18
16:30 Haundi – Aloña Mendi (Oho. erreg.)
Domeka, 19
10:30 Amaiak Bat – Elgoibar (Aleb. errend.)
10:30 Aloña Mendi – Urola (Aleb. errend.)
12:00 Ilintxa – Arrasate (Aleb. errend.)
16:00 Elgoibar – Euskalduna (Oho. jub.)

ESKUBALOAIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 18
10:00 Txarriduna – Bidasoa (Inf. mut.)
11:15 Bacalaos Alkorta – Bera Bera (Inf. nesk.)
12:30 Cometel – Eibar (Kad. nesk.)
16:00 Salento – Legazpi (Senior giz.)
17:30 Beristain – Urduliz (Jub. mut.)
19:30 Alcorta F.G. – Dominicos (Senior giz.)
Domeka, 19
10:00 Sanlo – Pulpo B (Aleb. nesk.)
11:30 Astigarraga – Ereintza (Kad. nesk.)
IMH Kiroldegian
16:00 Lauko – Bera Bera (Senior emak.)
17:30 Tecnifuelle – Kukullaga (Jub. nesk.)

Lorea Perez de Albenizek zuzendutako 'Órdago a pequeña' dokumentala emango du ETB2k domekan

Lorea Perez de Albeniz elgoibartarrak *Órdago a pequeña* izeneko dokumentala zuzendu du Zesatenjue naz ekoiztetxearekin, eta atzo aurkeztu zuten Gasteizen. Euskal Herriko historian berbiziko garrantzia izan zuten Euskadiko elizbarrutiko misiolarien lana eta Bittor Garaigordobil Los Rios-eko (Ekuador) gotzain ohia- ren ibilbidea laburbiltzen du. Garaigordobilek 102 urte beteko ditu aurten. Gaur egun, Urkiolako santutegiaren alboan Bizkaiko elizbarrutiak duen etxean bizi da, beste abade batzuek lagundu- duta. Afizio handiz jokatzen du asteroko mus partida, eta hortik datorkio izenburua dokumentalari. Izan ere, bere ikuspegiak, lan egiteko moduak eta Hego Amerikan bizi izandako aldaketek era- bateko aldaketa eragin zuten beregan eta elizbarrutiaren jardun- ean. Ondorioz, ordura arte inoiz planteatu gabeko moduan egin zuten lan, jarduera berritzaileak eta parte-hartzaileak bultzatuz, "bertako bizilagunen aldeko erronka eginaz eta euren kulturare- kiko errespetuan oinarrituz".

Zesatenjue naz Produzioak ekoiztetxeak *Itsasoari begira* do- kumentala estreinatu zuen Elgoibarren 2015ean Lorea Perez de Albenizen eskutik. Gaixotasun neurologikoa dutenen bizimodua azaleratzen zuen Maier Gurrutxaga elgoibartarraren alaba Itxaso protagonista zuen dokumentalak. *Órdago a pequeña* proiektua



erabat ezberdina izan arren, batak zein besteak oinarrian "elkar- tasuna eta autosuperazioa" dituztela azaldu du bi dokumentalon zuzendari Perez de Albenizek.

Domeka honetan ETB2n emango dute dokumentala, 11:00etatik aurrera. Hego Amerikan ere ikusi ahal izango da do- kumentala, ETBSAT katean emittituko baitute. Domekatik aurrera, berriz, eitb.eus web orriko ETBko Nahieran atalean ere ikusgai egongo da.

Elgoibarko dantzariak Beasaingo auresku eta soinu zahar txapelketan



Beasaingo auresku eta soinu zahar txapelketa jo- katu zuten joan zen asteburuan, eta Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako zortzi dan- tzarik parte hartu zuten: Nahia Urbiola, Irune Arriola, Jon Etxeberria, Eneko Etxaniz, Maddi Zabala, Aimar Almortza, Markel Goenaga eta Gaizka Uranga. Ion Lizarralde dantza irakasleak esandakoaren arabera, Elgoibarko dantzariak "ondo" aritu ziren. Hurrengo txapelketa Altsasun izango da martxoaren 26an.

Merkataritza eta ostalaritza izango da 2018ko egutegirako argazki lehiaketaren gaia

2018ko egutegirako argazki lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak, Ongarri argazkilari elkartearekin lankide- tzan, eta aurtengo gaia merkataritza eta ostalaritza izango da. Partaide bakoitzak, gehienez ere, sei argazki aurkeztu ahal izango ditu, baina pertsona bakoitzeko hiru argazki sarituko dira gehienez. Lanek originalak behariko dute izan. Elgoibarren jaiak, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek eta 16 urte baino gehiagokoak izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Epaimahaiak hamabi argazki aukeratuko ditu egutegi handirako eta beste argazki bat egutegi txikian jartzeko, eta Txankakua merkataritza elkarteko dendetan gasta- tzeko 70 euroko bonuarekin sarituko dute aukeratutako argazki bakoitzaren egilea.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek euren lanak 2017ko urriaren 11 baino lehen entregatu behariko dituzte Kultur Etxean (Euskara Saila, Kalebarren plaza 3, 20870 Elgoibar) edota euskara@elgoibar.eus helbide elektronikoan.



ZORIONAK ZURI

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Julen**, igandean, urtetxo bat beteko duzula. Etxekoen, eta bereziki, Alainen, eta Naroaren partez!



Ongi-etorri, **Maite Mendizabal Alonso!** Zorionak Maritxelo eta Amaia.



Zorionak, **Maddi**, gaur 8 urte egin dituzula. Muxu asko familiako partez. Ondo ospatu domekan!



Zorionak, **Kepa!** Bihar 8 urte beteko dituzu. Muxu handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Lara**, zure urtebetetze ondorenean. Zorionak, baita ere gure **Nastyari**, egun gutxi barru 18 urte beteko dituelako. Muxu pila bat biontzat, etxekoen partez.



Zorionak, **Telmo eta Iñigo**, atzo 5 urte egin zenituztelako. Jarraitu horrela, txapeldunak! Mila muxu, etxekoen eta bereziki Antxon eta Nerearen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 744 112

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR



- Asturias, Kantabria, Gaztela eta Leon eta Hego Euskal Herrirako lan egingo duen komertzial teknikoak behar dugu.
- Baldintza ekonomikoak, erakutsitako balioaren arabera.
- Enpresako autoa.
- Baloratuko da euskara eta ingeles maila handia izatea.

Bidali curriculumak quintana@murrplastik.es helbidera.

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

EGUZKITAKO
BETAURREKOETAN
AUKERA ZABALA.

19€ gehiagogatik
GRADUATU ITZAZU!

* Kontsultatu baldintzak

barrena 11, EIBAR
garajesGarcia.com

Marka guztietako gurpiletan deskontuak!

BOSCH
Service
Car Service

ARAGON
Inbentarioa
Inbentarioa

www.garajesgarcia.com
g.garcia@garajesgarcia.com

Erabazteko: **943 820 697**
Lanegia: **943 202 214**
943 127 271

14.000 €



TOYOTA AVENSIS 2.0 D4D ADVANCE
Motorra: 2.0 CM3 D4D Diesel
Km: 100.000
Egoera: erabilia

13.800 €



OPEL INSIGNIA ST 2.0 CDTI SPORT
Motorra: 2.0cm3 CDTI Diesel
Km: 120.000
Egoera: erabilia

22.600 €



HONDA CRV ELEGANCE 2.2 i-CTDI DIESEL
Motorra: 2.2cm3 I-CTDI Diesel
Km: 100.000
Egoera: erabilia

3.000 €



RENAULT LAGUNA GRAND TOUR
Motorra: 1.8cm3 16V Gasolina
Km: 90.000
Egoera: erabilia

12.000 €



HONDA CR-V 2.2 iDTEC COMFORT
Motorra: 2.2cm3 iDTEC Diesel
Km: 22.000
Egoera: erabilia

11.000 €



BERLINGO MULTISPACE 1.6 HDI TONIC
Motorra: 1.6cm3 HDI Diesel
Km: 60.000
Egoera: erabilia

LANA.....

Eskaerak

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 638 920 358 / 602 193 095

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago.

☎ 658 734 699

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago.

☎ 645 891 307

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 685 724 861 / 943 748 899

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Asteburutan ere bai. Esperientzia daukat.

☎ 631 506 763

Adinekoak zainduko nituzke, asteburuetan. Interna ere bai. Esperientziarekin.

☎ 648 039 187

Adinekoak zainduko nituzke, asteburuetan.

☎ 632 026 510

Adinekoak zainduko nituzke.

☎ 631 613 245

Adinekoak zainduko nituzke, goizetan. Esperientzia eta erreferentziak ditut.

☎ 602 057 185

Adinekoak zainduko nituzke. Interna lan egiteko ere prest nago.

☎ 649 044 223

Nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 612 493 242

Nagusiak zaintzen edota garbiketa lanetan egingo nuke lan. Esperientzia.

☎ 626 407 923

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta malgutasun osoa.

☎ 612 550 377

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Prestutasun osoa.

☎ 666 197 835

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia handia daukat. Orduka edo interna moduan.

☎ 697 665 452

Asteburuetan eta gauetan adinekoak zaintzeko prest nago.

☎ 651 156 456

Nagusiak zainduko nituzke. Interna moduan edo orduka lan egingo nuke.

☎ 632 983 250

Nagusiak zainduko nituzke. Interna moduan lan egiteko prest nago.

☎ 612 266 877

Nagusiak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo interna moduan. Esperientzia daukat.

☎ 602 490 595

Elkarte gastronomikoak eta etxeetako portalak garbitzeko prest nago.

☎ 617 571 210

Ettxeko lanak egiteko prest nago. Orduka.

☎ 632 737 903

Luzila da nire izena eta adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia daukat.

☎ 658 747 099

Gizona eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna.

☎ 635 005 536

Eskaintza

Jatetxerako sukaldari laguntzailea eta zerbitzaria behar dira.

☎ 620 810 120

Elgoibarko taberna baterako enkargatua behar da. Esperientziarekin. Bidali curriculum elgoibartaberna@outlook.es helbidera.

Ettxeko lanak egiteko pertsona behar dut.

☎ 656 780 748

ETXEBIZITZAK.....

Alokairua

Pisua alokairuan hartuko nuke Elgoibarran. ☎ 688 895 568

Apartamentua alokatzen dut San Franzisko kalean. Berrituta dago eta igogailua dauka.

☎ 616 708 247

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.

☎ 602 490 595


Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.

☎ 688 723 121



Jose Gomez Garcia

2017ko martxoaren 14an hil zen, 90 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzko Finantza Administrazioen Kontakide Kontsegiak



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

Komunitatea behartuta al dago igogailua egokitzera, bizilagun ezindu batek zailtasunak baldin baditu gurgildun aulkiarekin sartzeko?

Ezindu batek traba arkitektonikoak kentzeko eskatzen baldin badu, baina etxeraino igogailuan igo ahal badu, komunitatea ez da behartuta egongo igogailua egokitzera, sekula ezin direlako nahastu beharra eta erosotasuna.

Aldiz, igogailuan sartzerik ez balu, alegia etxeraino igotzeko igogailua erabili ezingo balu, komunitatea behartuta egongo litzateke behar diren egokitzapenak egitera, legeak jasotakoa betetzeko. Obra hori, gainera, komunitateko guztien artean ordaindu beharko lukete, baita igogailuaren gastuak ordaintzetik salbuetsitakoek ere.

AHOLKUA: Derrigorrez egin beharreko obra baten kasuan, presidentek batzarrera eraman dezake gaia, baina ez da bozketarik egin beharko aurrera egin ahal izateko. Ezinduentzako egokitzapenak komunitateko etxejabe guztiek ordaindu behar dituzte, elkartasunaren printzipioagatik inor ez dagoelako horrek ordaintzetik libre.

17 BARIXAKUA

20:30 Balleta, aurrez grabatua: *Romeo y Julieta*. Herriko Antzokian. Sarrerak aurrez erosteko Kutxabank bidez, edo zaparetuetan, Herriko Antzokiko leihatilan, 19:15etik 21:45era.

19 DOMEKA

12:30 Musika: Udal Musika Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian.

Egitaraua:

1. *Oviedo* (P. Marquina)
2. *Rapsodia Húngara nº2* (F. Liszt)
3. *The millennium song* (K. Vlak)
4. *Ansiedad* (J. Sarabia)
5. *Café Latina* (H. Kolditz)
6. *Benny, goodman memories* (N. Iwai)

13:00 Kontzertua: Sustrai akordeoi taldearen kontzertua, Mendaroko San Agustín kulturgunean.

24 BARIXAKUA

20:30 Antzerkia: 'Jokoz kanpo'. C.D. Elgoibarrek antolatuta, Herriko Antzokian.

22:00 Bertso saioa: Unai Iturriaga, Alaia Martin, Julio Soto eta Jone Uria. Mendaroko San Agustín kulturgunean.

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

- 17 Barixakua IBAÑEZ*
- 18 Zapatua GARITAONANDIA
- 19 Domeka GARITAONANDIA
- 20 Astelehena ETXEBERRIA
- 21 Martitena FERNANDEZ*
- 22 Eguaztena YUDEGO
- 23 Eguena ORUESAGASTI*
- 24 Barixakua BARRENETXEA

20:00 - 22:00

* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik: BARRENETXEA (Elgoibar) Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar) San Agustín, 3 - Tel.: 943 820 533

- FERNANDEZ: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142

- IBAÑEZ: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638

- ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384

Zinea (Herriko Antzokian)




'50 sombras más oscuras'

18 zapatua: 19:00 / 22:15
VOS

19 domeka: 19:00

20 astelehena: 21:30



'El regalo de molly monster'

19 domeka: 16:30

**Herrialde honetan amets egiten da, berritu egiten da. Gu hemengoak gara.
Bertoko proiektuak babesten ditugu.**



Julen Ansola

Irati Agirrezaldegi



Goizero hartzen dut bizikleta. Erreka aldamentetik joaten naiz pedalei kolpeka. Ez, ez da errekorren bat lortzeko entrenatzea nire meta, baina bai, ordulariari jartzen diot arreta, trenera garaiz iritsi behar izaten dut eta.

Bizikletari klik egin eta pedalei eman ez pixkanaka, gurpilak hasten dira bueltaka, gurpilak eta nire buruko hitzak ere bai jiraka.

Gogoan dut bizikletan ibiltzen ikas-

teko erabili nuen Orbea. Gero oparitu zidaten zuriak gehiago irauin zuen, ordea, baina ez dakit nonbaiten egongo ote den gordea. Oraingoa, lehenengo hura bezala, berdea.

Eguzkipean lasai, buruan garai bateko bizikleten itzala eta ni aldamenean daukadanari segika. Euri tantak balira ez nintzateke mantso eta nire baitan barnerratuta joango apika. Horrelakoetan bidegorrian ahalik eta azkarren joatea galarazten didatenei joaten naiz tirrinarekin agirika.

Ez agiri, ez txirrin hotsa. Beroa ala hotza. Batzuk bizikletan ibiltzeaz lotsa,

baina norberak zergatik ez goza. Bizikleta bati ikusi nion lehengoan matrikula eta hori zen bere hitza, bere hotsa, errepidean auto bat gutxiago ikustek eman beharko ligukeela poza.

Alferrik dira txirrin, haserre eta berriketa. Bizikletan lasai joan ezean bide txarretik azkar joateak zein gutxi balio duen konturatzeko emango baitigu beta. Etxeko pareta. Aparkatu dut bizikleta eta hurrengo goizera arte han egongo da itzalpean baino itzalaren kontra, ezkutuan edo gordeta. Bihar berriz ere gurpilak biraka hasiko dira-eta.


“Batzuk bizikletan ibiltzeaz lotsa, baina norberak zergatik ez goza”



Justo Arriola Zubiaurre

2017ko martxoaren 7an hil zen, 89 urte zituela.
Haren oroimenez meza, domekan, martxoaren 19an,
izango da, 10:30ean Sallobenteko elizan.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.***



II. URTEURRENA

Lurdes Zubiaurre Pujana

2015eko martxoaren 18an hil zen, 64 urte zituela.

***Hainbeste maite zenituen
zure bailara eta mendia,
zure alaba eta biloba txikia,
lagunak eta sendia.
Guk ere maite zaitugu,
egin lasai bidia.***

Etxekoak



II. URTEURRENA

Patxi Ajubita Ayesta

2015eko martxoaren 16an hil zen, 61 urte zituela.

***Zure hutsuneak
gure bizitza betetzen du,
eta hala ere, ez da posible
zutaz oroitzea
eta irribarrerik ez egitea.***

Maite zaitugu.



Ford Focus-aren 20. Urteurrenaren BEREZIA

20 UNITATE LIKIDATZEN DITUGU
APARTEKO PREZIOAN

14.980€ + 7 urteko
Garantia

Baliatu aukera!
MARTXOAREN 31ra ARTE BAKARRIK



Eskaintza ballagarria martxoaren 31ra arte edo stock-a agortu arte. Promozioa ezin zale gehitu bestelako eskaintza edo deskontuei. Zergak barne. Matrikulazio-gastuak ez daude barne. Ford credit-ekin finantziatuta. Galdetu baldintzak.



FORD KONDIA
Otaola Etorbi, 22 - EIBAR
T. 943 202 091


ZIORLA AUTOAK
Santamaria Auzoa, 19 - IURRETA
T. 946 815 569

www.fordkondia.com



Emaiguzu **BARREN** komunikazio proiektuari buruz daukazu iritzia

BARREN Komunikazio proiektua herritarrekin eta herriarentzat eginiko proiektua da. Hori dela eta, herritarrek proiektuari buruz duten iritzia ezagutu nahi dugu, komunikazio proiektua hobetu ahal izateko. BARREN komunikazio proiektuak bi euskarri ditu: BARREN astekaria paperean eta barren.eus webgunea Interneten. Bi euskarri horiei buruzko galdeketa prestatu dugu, eta hori betetzea eskertuko genizueke, gure bi euskarriak irakurleen beharretara egokitu ahal izateko.



- ◆ Sinplea eta erraza da inkesta betetzea.
- ◆ Inkesta orria BARRENeke bulegoan eska dezakezu.
- ◆ Inkesta online betetzeko aukera ere baduzu, www.barren.eus atarian.

Zure iritzia guretzat garrantzitsua delako.
Mila esker BARRENI zure denbora eskaintzeagatik.

Inkesta entregatzeko azken eguna:

Martxoak 31

Non entregatu?
BARREN astekaria
(Nafarroa plaza 2, behea) edo
Elgoibarko Izarra (Ubitarte 4 behea)

